Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Migel Urroz Arrastio

Oitz, Nafarroa (1936)



Aurkibidea

Biografia



Oizko (Malerreka) Etxezarrean sortua, aita ere Oizkoa zuen eta ama Donamariakoa. Gazterik hasi zen oihanean basogintzan, eta hainbat urtez ibili zen lanbide horretan, Malerrekan eta Iratin, besteak beste. Zura ere landu izan du (gurdiak, lerak, baserriko tresnak...), eta azken urteotan feriatara ere joan izan da bere lanak erakustera eta saltzera (batez ere egurrezko lepokoak, oholak...). Elkarrizketa bere lantegitxoan egin zitzaion. Ehiztaria ere izan da txiki-txikitatik, eta horri buruzko hainbat azalpen aipatu ditu elkarrizketan.

Zintak

OIT-003

- **Proiektua**: Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2007-08-09
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Otegi, Aitziber
- **Emalea**: Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. 1936an, gerrate-garaian jaioa

- **Erref**: OIT-003/001
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
1936an jaioa gerratearekin batera. Hiru-lau urte zituenekoa da duen gerrako lehen oroitzapena; hegazkinak gogoratzen ditu.

Transkripzioa
- Hasteko, esango didazu zure izena eta apellidoak eta noiz jaiotakoa zean.
- Ni naiz sortua urrian hogeita batin, mila ta bederatziehun eta hogeita hamasein. “Mil novecientos treinta y seis”.
- Urrian.

- Bai, urrian. Bai, hogeita batin.
- Gerra sortu zan...
- Bai, bai, orduan. Ordun in berria zen. Hala erraten diten, nik ez nun ordun ezautzen, zergatiken... Gero bai, gero handiken ya hiru urte, hiru urtetan hola, hiru-lau urtetara ya jakiten baitzen, ordun bai, hori, abionak eta somatzen nitun.
- Bai, e?

2. Aita zena uso ehiztari ona

- **Erref**: OIT-003/002
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:00:50. **Bukatu**: 00:02:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:
Aita zena usotara joaten zen eta mordoxka ekarri ohi zuen etxera. Uso-toki ona zen Migelen etxe ingurua eta hegazti-saldo izugarriak pasatzen ziren. Txori-izenak aipatzen ditu.

3. Frantziako ehiza mota

- **Erref**: OIT-003/003
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:02:21. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:
Frantzian sareekin txoriak harrapatzen ikusi zituen. Hango harrapaketaz eta txori ezberdinez hitz egiten du.

4. Bederatzi urterekin tiragomarekin ehizan

- **Erref**: OIT-003/004
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:09:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Migelek gaztetan, bederatzi bat urterekin, tiragomarekin ehizatzen zuen. Inguruan jende gehiena ehiztaria zen. Basurde garaian ere asko mugitzen ziren txakurrekin ehizara. Herriko naiz kanpoko jendea gerturatzen zen alboko sei herrietako jendea elkar hartuta.

5. Azeri eta azkonarren pikardiak

- **Erref**: OIT-003/006
- **Iraupena**: 0:05:05. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Azeriek eta azkonarrek garia jan ohi zuten eta kaltea saihesteko batidak egiten zituzten. Azkonarrak kaja batekin zepoa eginaz harrapatzen zituzten. Azeriei mendian jartzen zitzaien zepoa. Zepo-motak aipatzen ditu. Hil ondoren haien larrua saldu egiten zuten eta ondo ordaindua zegoen. Basa-abere ezberdinak aipatzen ditu.

6. Katua zein azkonarra, otordurako jaki

- **Erref**: OIT-003/007
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:17:05. **Bukatu**: 00:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Abere ugari jaten zuten, esaterako, katua eta azkonarra. Saltsan edo gisatua eginda jaten zituzten.

7. Ehizatutako abereen larrua saldu aurretik udaletxera

- **Erref**: OIT-003/008
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:21:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Harrapatutako aberearen larrua saltzeko udaletxera eraman eta erakutsi egin behar zuten. Ez zuten gehiegi ordaintzen. Azeria eta belea zeuden onartuak salmentarako.

8. Neguko paseko txoriak

- **Erref**: OIT-003/009
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:24:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:
Txorien inguruan hitz egiten du. Lertxuna, antzarrak, ahateak... neguko paseko txoriak.

9. Ahateak jaki goxoa

- **Erref**: OIT-003/011
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:25:38. **Bukatu**: 00:26:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Ahateek larrutzen lan pixka bat ematen zuten, baina jatekoa ziurtatua izaten zuten.

10. Eskopeten inguruko azalpenak

- **Erref**: OIT-003/013
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:27:37. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Gaztetan birigarroak ehizatzen zituzten, eskopeta zaharrarekin. Eskopeta ezberdinak aipatzen ditu. Armeriak baziren inguruan eta Eibarrera ere bidaltzen zituzten eskopetak konpontzera.

11. Lehenengo eskopeta 11 urterekin

- **Erref**: OIT-003/014
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:30:30. **Bukatu**: 00:32:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Lehenengo eskopeta 11 urterekin izan zuen. Soldadutza egin arte ez zuen legalki paperez jarritako eskopetarik izan.

12. Tiro bakarra eta denek batera

- **Erref**: OIT-003/016
- **Iraupena**: 0:06:00. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:39:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Ehizan ari zirenean, uso-saldoak gerturatzean, uso denak zelaian geldirik jarri arte ezin zuten tirorik bota, tiroa botaz gero ez zieten uzten berriz botatzen txanda pasa egiten zitzaion pertsona horri. Tiro bakarra eta denek batera botatzen zuten.

13. Ehizara goizean argitu aurretik; zemelak

- **Erref**: OIT-003/017
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:39:00. **Bukatu**: 00:41:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Goizean argitu baino ordubete aurretik jartzen ziren zain. Sua ere egiten zuten. Gurasoak ere bere garaian ibiltzen ziren ehizan. 50-55 urte ingurutik zemelak desagertu egin ziren. Zemelaren inguruko azalpenak.

14. Ehizarako toki aproposak

- **Erref**: OIT-003/018
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:41:45. **Bukatu**: 00:45:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Ezpeldegi eta Donamaria inguruan ibiltzen ziren ehizan. Inguruko mendiak eta bazterrak izendatzen ditu.

15. Umetako jolasak: "txintxarikuan" eta "sosetan"

- **Erref**: OIT-003/021
- **Iraupena**: 0:05:52. **Hasi**: 00:49:08. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Ama Donamariakoa zuen; eta aita, Oizko ostatukoa. Garai batean, etxe ugaritan egoten zen jendea maizter. Umetan, Oitzen 60 mutiko inguru zeuden. Zuhaitz gainetik militarrei begira egoten ziren. "Txintxarikuan" eta "sosetan" jolasten zuten. Jolasak azaltzen ditu.

16. Lagunekin errekara arrantzara eta bainatzera

- **Erref**: OIT-003/022
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:55:00. **Bukatu**: 00:57:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Errekara lagunekin joan, eta arrantzan aritzen ziren. Arrantza nola egiten zuten azaltzen du. Putzu bat zuten eta han bainatzen ziren.

17. 12 urterekin lantegira lanera

- **Erref**: OIT-003/023
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:57:00. **Bukatu**: 01:00:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
12 urterekin tailer batean hasi zen lanean eta aitarekin ere ibili zen. Gero basoan jardun zen. Anaiarekin zerbitzari lanetan aritu zen rantxero moduan txabola batean. Lo bertan egiten zuen batzuetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-06

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com